

Obulu bideragarriak sortu dituzte laborategian, azaletik abiatuta

Saguen azaleko zeluletatik abiatuta obuluak laborategian sortzea lortu dute ikertzaile japoniar batzuek. Prozesu osoa laborategian egitea lortzen den lehenengo aldia da. Obulu horietatik ondorengo osasuntsuak atera dira, gainera.

Ikerketa-taldeak urteak daramatza ildo horretan lanean. 2012an erakutsi zuten obulu bideragarriak lortu zituztela, azaleko zelulak birprogramatuz sortutako zelula ametatik abiatuta. Zelula germinal primordialak lortu zituzten, alegia, garatuz gero espermatozoide edo obulu bilakatuko diren zelulak. Kasu hartan, zelula horiek obulu bilakatzeko, saguen obarioetan sartu zituzten.

Orain azken pauso hori ere laborategian egitea lortu dute. Horretarako, zelula germinal primordialak obarioetan sartu beharrean laborategian hazi dituzte, sagu-fetuen obarioetatik erauzitako zelulen artean jarrita. Laborategiko "obario" horietako bakoitzean 50 bat obulu garatzea lortu dute. Sortutako obuluak sagu emeei sartu zizkieten, eta 11 kume atera ziren.

Jaiotako kumeak osasuntsuak dira, eta ugalkorrek; izan ere, ikertzaileek adierazi dute dagoeneko ondorengoak ere izan dituztela. Ikertzaileen hurrengo helburua da sagu-fetuen obarioetako zelulak erauzi behar ez izatea. Horretarako, zelula horiek ordezkaturako lituzkeen errektibo bat lortu nahian ari dira. ●



Saguen zelula ama enbrionarioetatik laborategian sortutako obuluak. ARG.: O. HIKABE ET. AL., *NATURE* 538, 7625 (20 OCTOBER 2016) © MACMILLIAN PUBLISHER LTD.


Zeliakiarekin lotutako zenbait gene aurkitu dituzte EHUko ikertzaileek

Zeliakiarekin lotutako zenbait gene aurkitu dituzte EHUko ikertzaileek, datu genomikoak aztertzeke metodologia berri bat aplikatuz. Horrez gain, gene horietako batzuen espresioan aldaketak ere atzeman dituzte. [European Journal of Human Genetics aldizkarian argitaratu dute lana](#), EHUko Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalia Fisiologia saileko eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pediatria saileko kideek.

Abiapuntua duela bost bat urte nazioarteko ikertzaile-talde batek egin-dako [azterketa sakon bat](#) izan zen. Azterketa hartan 8 herrialdetako ia 25.000 pertsonaren genomak aztertu zituzten, eta zeliakiarekin lotutako hainbat eskualde eta gene berri topatu zituzten. Baina EHUko ikertzaileek susmoa zuten datu haiek askoz gehiago eman zezaketela. "Ia 25.000 pertsona aztertzen dituzunean, aniztasun genetikoa oso handia izan daiteke", azaldu du lanaren gidari Koldo Garciak. "Aniztasun gehiegi badago, zarata gehiegi dago, eta ezkutuan gelditu daitezke gaixotasunarekin lotuta dauden aldaera batzuk".

Hala, pentsatu zuten gakoa izan zitekeela hurbiltasun genetikoa kontuan hartuta egitea azterketa, taldekatzea. Horri esker, zeliakiarekin lotuta dauden eskualde eta gene berri gehiago topatu dituzte. "Deigarriena egin zaiguna bigarren kromosoman dagoen zati oso handi bat da, 11 gene daude bertan".

Biopsiak eginda, baieztatu dute 11 gene horietatik sei edo zazpiren espresioa aldatu egiten dela gaixotasunarekin. Horietako bat laktasaren genea da. Jakina zen zeliakoek gaixo



EHUko Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalia Fisiologia saileko kideak. Goian, ezkerrean, Koldo Garcia.

daudenean arazoak dituztela esnea toleratzeko, baina glutena hartzeari uzten diotenean arazo hori desagertzen dela. Hain zuzen ere, orain ikusi dute tratatu gabeko zeliakoetan genearen espresio-maila oso txikia dela, eta tratatutakoetan, berriz, normala dela. Bestalde, beste bi generen kasuan ikusi dute gaixotasuna tratatutakoan ere ez direla maila normalera bueltatzen. "Gene horiek akatsen bat dutela uste dugu, eta horregatik espresatzen direla gutxiago", dio Garciak.

Lortutako emaitzez gain, Garciak uste du erabili duten metodologia beste gaixotasun genetikoko batzuekin erabiltzea interesgarria izango litzaitekeela. "Gaixotasun askorentzako datuak hor daude, eta ona da datuak berrerabiltzea; batetik, ikerketa sostengarriago egiten du, asko aurretik delako, eta, bestetik, begi berriekin begiratuta, gauza politak atera daitezke". ●

